

Ekainaren 1etik eskatu hitzordua



Gaurko egoera

Bi hilabete eta erdi itxita egon ondoren eta garbiketa sakona egin eta gero, gure liburu eta instalazioak egoera egokian daude baina oraindik, ohiko erabilerari dagokionez, murrizketak ezinbestekoak izango dira.

Hemen duzu Bibliotekan egin eta egin ezin daitekeenaren berri:

Itzultzeak

- Martxoaren 1etik irailaren 14ra bitarteko mailegu guztiak irailaren 15era arte luzatu ditugu itzultzeak lasai egin ditzazun.
- Liburuak UPV/EHUko edozein bibliotekatan itzul ditzakezu, baina **hitzordua eskatu** behar duzu. Lotura honetan azaltzen dizugu non eskatu behar duzun: <https://labur.eus/owwAM>
- Itzulitako liburuei 14 eguneko **berrogeialdia** ezarriko zaie. Katalogoan ohar baten bidez emango zaigu liburuaren egoera

Maileguak

- Liburu bat maileguan eraman ahal izateko, **ezinbestekoa izango da alde zurretik erreserba bat egitea**. BiblioKlip honetan erreserba nola egin ikus dezakezu: <https://labur.eus/UVjQv>
- Liburu maileguan eramateko prest dagoenean, jasotzera etor zaitezkeela esanez mezu bat bidaliko dizugu zure UPV/EHUko posta elektronikora, eta beste mezu bat jasotzeko hitzordua proposatzeko.

Erreserbak

- Itxiera orduko jasotzeko erreserbarik bazenuen edo hilabete hauetan erreserbaren bat egin baduzu, oraindik ere interesatzen ote zaizun galdetuko dizugu, eta hala balitz, jasotzeko hitzordua proposatuko dizugu.

Artikuluak eta kapituluak eskaneatu (berria)

- Aldizkariko/egunkariko artikuluren bat edo mailegatzan ez den paperezko liburu bateko kapituluren bat behar baduzu, eskaera-orri honen bidez eska dezakezu: <https://labur.eus/ZtPs5>
- Eskatutako hori eskaneatu egingo dizugu, beti ere Jabetza Intelektualaren Legearen mugak kontuan hartuta (liburuaren % 10), eta doan bidaliko dizugu posta elektronikora.

Oraindik ezingo da egin

- Ezin zara hitzordurik gabe etorri
- Ezin da mailegu-eremuan sartu maskararik gabe.
- Liburuak dauden aretoetara ezingo da sartu. Aldez aurretik erreserba ezazu behar duzuna eta eramateko prestatuko dizugu.
- Ezin da bibliotekan ikasi.
- Ezin dira ordenagailuak erabili, ezta katalogoa kontsultatzeko ere.
- Erreserbak etxetik edo norberaren telefonoa erabiliz egin beharko dira.

